

## OSINAGAKO JAIK GATUR ETA BIHAR

# 'Sega apustua', bakailu probaketa eta berbena, gaur Osinagako jaietan

■ Eguerdiko 12:00etan botako dute txupinazoa ■ Aurten auzoko argazki zaharren erakusketa egingo dute, igandean



Osinagako mus txapelketako finala gaur jokatu da.

EKAINA festa hila izaten da Hernanin eta asteburu honetan Osinagako jaien txanda da. Harriatsun dena pronto dago auzoko eta herriko jendeak asteburu ederra pasatzeko.

### 'SEGA APUSTUA'

Osinagan badute festetan auzoko segalariak lanean jartzeko ohitura. Aurten, ordea, kanpotarren kontra arituko dira: Millan Telleria bertsolaria eta bere lagunaren kontra. Proba txanda librean da, saila zeinek aurrena ebaki. Bestek arraiztuta. Osinagatik Jose Mari Bergaretxe eta Joxe Zubiondo aterako dira. Bergaretxe iaz ere aritu zen. Zubiondo, berriz, arraizten aritu zen iaz, eta aurten, mozten.

Sega lanak bukatu eta pelota partiduak. urtero egiten da auzoko txapelketa. Ondoren, bertso eskolako bertsolariak egingo dute saioa. Afal aurretik, sagardo eta bakailu probaketa. Eta, hamaiketarik goizalde arte dantza, Laioztzekin.

### AUZOKO ARGAZI ZAHARRAK

Aurtengo nobedadeetako bat auzoko argazki zaharren erakusketa jartzea izan da. Jai batzordeak hasieran bazuen kezke txiki bat ea jendeak nola erantzungo ote zuen. Baina, jendea gustatu egin zaio eta auzoko argazki pila dezentea bildu du. Harriatsun egongo dira jarrita. □

### EGITARAUA: GAUR

10:00: Mendi bizikleta eta hamaiketako haurrentzat  
12:00: Txupinazioa eta haur jolasak.  
16:00: Museko finala.  
17:30: Segalariak  
Ondoren: Auzoko txapelketako pelota partiduak  
Ondoren: Bertso saioa  
20:00: Sagardo eta bakailu probaketa  
23:00: Laiotz taldea.

### IGANDEAN

11:00: Rafa eta Txuriari lore eskaintza.  
12:00: Pelota. Finalak  
13:00: Bertsolariak: Peñagari-kano eta Telleria.  
14:00: Bazkaria  
17:00: Auzo kirolak  
20:00: Xapre taldea

## Mendiak eta tiroko lekuak erabiltzeko berdintasuna eskatzen dute

■ Txirta eta Muxarra elkarteek udalarekin konbenioa nahi dute "herritar guztiek aukera beretan sartzeko".

TXIRTA eta Muxarra elkarteek ehiza postuak eta tiroko lekuak administratzeko konbenioa egin nahi dute udalarekin. Bi elkarte horiek zabaldu duten prentsa oharrak dienez, bai Santa Barbarako tiro lekua eta bai ehizeko postuak Txantxangorri elkarteak darabazki. Muxarrak eta Txirtak nahi dutena da "Txantxango-

rriko bazkideentzako bakarrik diren txapelketak eta probak kendu, eta nahi duen guztiak antolatzeko aukera izatea, instalazioak herritar guztienak direlako".

Era berean, bi elkarteek eskatzen dute herri lurretan dauden ehiza postuen zozketan jende guztiak aukera bera izatea. □

## Xalaparta elkartearen urteurreneko festa gaur

■ Arratsaldeko 19:00etan meza izango da; 20:00etan txalapartariak joko dute elkarteko sarreran; 20:30etan, berriz, ohorezko aureskua dantzatuko zaio Fermin Cuesta eta familiari; 20:45etan hasiko da 19garren urteurreneko afaria; 23:15etan 19garren mus txapelketako sariak banatuko dira 23:30etan *Hernaniar Bikaina* izendatuko dute Fermin Cuesta; eta 24:00etan nahi duena festara eta besteak ohera.

## Elizatxo ikastolako jaiak gaur egun osoan

■ Goizeko 09:00etan hasiko da pelota txapelketarekin. Ikasle, irakasle eta gurasoek joko, dantza, karaoke eta abar antolatutuzte. Bazkaria: 14:00etan. Ekitaldia, Elizaxon bertan.




**Keunka**  
MUEBLE RUSTICO

**Ekainaren 11tik aurrera.**  
A partir del 11-06-01

Florida auzoa 40 - 20120 HERNANI  
☎ 943. 33 32 24

**Existenziak bukatu arteko aukera bikaina.**

**KOLEKZIO BUKAERA DELA ETA 4.000 MUEBLETIK GORA LIKIDAZIOAN DITUGU, PINU MAZIZOAN.**

Por final de colección liquidamos mas de 4.000 muebles en pino macizo.

**100 MODELOTIK GORA: LOGELA, EGONGELA, HARRERA, KOMODA, MAHAL, AULKI, SEKRETERAK ETA ERA GUZTIE-TAKO OSAGARRIAK. BARNIZ ETA TXURIAN.**

Acabado natural a la cera y color blanco, mas de 100 modelos diferentes: dormitorios, salas, recibidores, comodas, mesas, sillas, secreters y todo tipo de auxiliares.

**IMPORTATUTAKO ALTZARIAK KOSTU PREZIOAN.**

Muebles directamente de importación a precios de costo.

**'DIA' SUPERMERCATUAREN ONDOAN GAUDE ESTAMOS JUNTO AL SUPERMERCADO 'DIA'**



Astelehenetik ostiralera 15:00-etatik 19:00etara (Almazena)  
De lunes a viernes de 15:00 a 19:00 h.



**Telemar**

ITXASTELE S.L.

Telyco denda

Elkano 13, HERNANI ☎ 943 33 26 00

### ESKEINTZAK:

**ordenagailua:** Komunitotako berezia

**AMD K7 DURON 800 MHZ**  
SDRAM 128 MBko memoria, 15"ko monitorea, 8 MB 3D ko AGP tarjeta grafikoa, Sound Blaster 129 PCI soinu txartela + Genius Vivid Pro III USB 1200x600 escanerra + (LexMark Z12 1200x1200 Inpresora)

**99.900 Pta + %16ko Bez a.**

- ⇒ 'Telefonica'ko banatzailea
- ⇒ Movistar
- ⇒ Zentralitak
- ⇒ Faxak
- ⇒ Telefonía mugikorra
- ⇒ "Via digital", inalanbrikoak,...

**mobilak**

**ALCATEL**

ONE TOUCH

300 - 301 - 302 - 303

**14.900 pzta.**

(10.000 pzta deietan).



**AMEGAR, C. B.**  
ETXE TRESNAK

**SUKALDE ALTZARIAK**  
Izpizua 27

**ELEKTROGAILUAK -TB - BIDEOAK - HI-FI - OPARIAK**  
Txirrita kalea 15

Tel 943 551125-Faxa 943 551603  
**HERNANI (Gipuzkoa)**



## PLENOA ASTEAZKENEAN

### Abiadura Haundiko Trenaren proiektuari errekurtsioa sartuko dio udalak

■ Zenbait herritarrek (1200 sinadura) egindako eskaria izan da ■ EHko bederatzizinegotzien botuekin atera da aurrera. EA-EAJko zinegotziek aurka bozkatu zuten.



Plenoan mozioa irakurtzen.

AHTaren proiektuarekin ados ez dauden zenbait udal eta taldek elkar hartu eta errekurtsioa jarriko diote trenaren proiektuari. Hernanin talde bat arduratu da firmak bildu eta gaia udalera eramateaz. Asteazkeneko plenoan erabaki zuten udala ere errekurtsioa sartuko duten taldeen artean sartzea. AHTaren aurkako taldeko proiektua ez onartzeko arrazoiak azaldu zituzten plenoan.

**EH, MOZIOAREN ALDE**  
EHkoak AHTaren aurka dauden taldeekin bat egitearen alde bozkatu zuten "bere garaian" errekurtsio bat hirigintza batzordean onartu zela esanaz "nahiz eta orduko udal gobernuak (EAJ, EA eta PSE-EE) gero tramitatu ez". Horrez

gain, herri mugimenduek egindako lana azpimarratu zuten eta indibidualki indar egin beharrean "talde guztiek batera" egitearen garrantzia azpimarratu.

#### EA-EAJ, AURKA

Oposizio talde nagusiak aurka bozkatu zuten "gaiak ohizko tramitaziorik ez baitu segi". Beren iritziz, "hirigintza batzordean eztabaidatu beharko litzateke gaia" eta ondo aztertuta hartu beharko litzateke erabakia. Udala "aurretik ezer egin gabe, kanpotik etorritako proposamen baten zain" zergaitik egon den ere galdetu zuten.

#### MANUEL JIMENEZEN ESKARIA

Plenoko beste gaietako bat aspaldiko kontu baten ingurukoa izan zen. 1984ean udalak talde tekniko bat kontratatu zuten arau subsidiarioak idazteko. 1990eko ekaineko plenoan, oposizio taldeen botuekin (EA, EAJ, EE eta PSE) hiru puntuko mozio onartu zen:  
- Udalak konfidantza galdu du talde teknikoarengan, eskutako lanak ez betetzeagatik.  
- Udalarekin duten kontratua moztuko da.

- Talde berria kontratatzeko beharrezko jessioak hasiko dira.

Ordu hartan argumentatutako arrazoiak ziren talde tekniko haren 6 hilabete egin beharrek lana bi urte atzeratu zela eta talde guztiek jendeaurreko arau subsidiarioen dokumentu bakar bat egiteko eskatuta ezeko eman zuela.

Talde teknikoak plenoko erabakia errekurritu egin zuten, eta 1995ean epaiek arrazoi eman zieten hiru langileei "beren eginbeharrak ondo bete zituztela-eta". Udalak errekurritu egin zuten sententzia. Kontenzioso Administrazioaren erantzuna aurten iritsi da: talde teknikoari ematen dio arrazoi eta udalaren errekurtsioa ez du onartu.

Honen bueltan Manuel Jimenezek mozioa aurkeztu zuten plenoan. Hiru puntutik bi onartu ziren EHren aldeko botuekin, eta EA-EAJko zinegotziak abstenitu egin ziren:  
- Udaleko plenoan bi sententzien berri eman dedila.  
- Manuel Jimenezen idatzia sar zedila plenoko aktan.

Udalak bi sententziak eta orduko plenoak zioena prentsan ateratzea zen beste puntua, baina ez zen onartu. □

### ■ WATERPOLOA (GIPUZKOAKO KOPA)

## Hernanik finala jokatu du gaur Anoetan

■ Finalurrekoetan Eibarri 1-13 irabazi zion ■ Gaztetxoak txapeldun gelditu dira.

HERNANIKO taldeak denboraldiko hirugarren titulua lortu lezake gaur Donostian, arratsaldeko 20:30etan. Gipuzkoa eta Euskal Herriko ligak irabazita Gipuzkoako Kopako finalean dira, orain.

Easo izango dute aurkari: talde gogorra. Gainera, igerilekua itxita egonda hernaniarrek ez dute aspaldi entrenatu. Kontuak kontu ez dute bururatu beste aukerarik titulua etxera ekartzeko ezker.

#### ESKOLARTEKOAN TXAPELDUN

Infantil eta kadete mailetan Hernaniko taldeak gelditu dira Gipuzkoako txapeldun, oraintsu jokatuak txapelketetan. Infantiletan Uru-mea ikastolakoak atera ziren; baita 3-2 finala irabazi ere.

Kadeteetan Langile ikastolako gazteak izan dira txapeldunak, finala 1-3 irabazita. □



Igande honetan denboraldi amaierako jai berezia.  
**TRIKI TAKE eta TRAKETS ekin**

Uda festaz festa pasa ondoren, urrian lehendabiziko igandean zabalduko dugu berriro.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38



## Antziola-Motor Zerbitzu Ofiziala

- ▶ Kotxe berri eta aukerako salmenta
- ▶ Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- ▶ Aseguruen gestioa
- ▶ Finantziarioak
- ▶ Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

## JUBILATU ETXEA

### Zornotzara egun pasa, ekainaren 16an

■ Jubilatuek Bizkaia bidaia antolatuta dute. Zozketa datorren astelehenean (ekainak 11) egingo da Jubilatutako Etxean, betiko orduan. Bidaiaren prezioa: 2.500 pta. □

## ■ PELOTA EREÑOTZUN

### Finalurrekoak gaur San Antoniotako Txapelketan

■ **Eskuz:** 16:00etan: Zelaia-Joxe / Tutu-Mikel. 16:30etan: Xabi-Gorka / Joxe-Jokin. **Palaz mutilak:** 17:00etan: Ibon-Aitor / Arkaitz-Unai. 17:30etan: Patxi-Urbixu / Gaxi-Goñi. **Palaz neskek:** 18:00etan: Mari Mar-Jone / Josune Amaia. 18:30etan: Ana Olga-Ixiar / Izaskun Iholdi. Guztiak Ugaldetxon. □

## ■ MUS TXAPELKETAK

### Afaria eta finala gaur Santa Barbara elkartearen

■ Caros-Xaxi / Manu-Josetxo izango da finala. 3garren posturako partidak: Sesma-Kaki / Zelarain-Felipe, Helio-Joseba / Iñigo-Jokin eta Vixente-Fernando / Txarli-Iñaki. Afaria 20:30etan hasiko da eta ondoren, partidak. □

## BAKE KONFERENTZIA

### Elkarri firma biltzen gaur, Plaza Berrian

■ Elkarri Bake Konferentziaren alde sinadura biltzen ariko da gaur eguerdian. 11:00etatik 13:00etara. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoak: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Correa Antziola 44 ☎ 943 551933
- ▶ Gaez: Oa Usurbil. 1 poligonoa ☎ 943 376076

## IRAGARKI MERKEAK

■ Etxeko lanak egiteko emakume bat nahi genuke, aste barruan 10:00etatik 15:00etara. Interesatuak deitu: ☎ 943- 33 28 37



## EASO

### G.B.L.H.I. POLITEKNIKOA

Felipe IV etorbidea 1-b DONOSTIA. Tel 943- 455422 Faxe 943 470022

## Eskaintza Akademikoa

### EGUNEKO IKASKETAK

☎ Batxilergoa (A eta D ereduatan).

- Natur eta Osasun-Zientzien
- Batxilergo Teknologikoa (A eta D ereduatan).

☎ Heziketarako Zikloak (A eta D ereduatan).

- Erdi Mailakoak
  - Arotzerien eta Altzarien neurri egindako fabrikazioa eta instalazioa
  - Ekipo eta instalazio elektroteknikoak.
- Goi Mailakoak
  - Eregulazio eta kontrol sistema automatikoak
  - Mekanizazio bidezko Produkzioa.
  - Eraikuntza proiektuen garapen eta aplikazioa.
  - Arotzeriako eta altzarigintzako produktuen garapena
  - Ingurugiro kimika

### GAUEKO IKASKETAK

☎ Heziketarako Zikloak

- Erdi Mailakoak
  - Arotzerien eta Altzarien neurri egindako fabrikazioa eta instalazioa
  - Mekanizazioa
- Goi Mailakoak

Izena ematea ekainaren 1etik 12 ra.